

GIZA TALDEA

Enpresaren urteko prebentzio-programazioak hasiera batean 172 ekintza hartzen zituen barne. Prebentzio-kudeaketak berak ekintzak sortzen joatea eragiten du, ordea, eta, horrenbestez, abenduaren 31n 293 ekintzakosatzen zuten prebentzio-programazioa.

Haietatik 212 (% 72) amaituta daude, eta 52 gauzatzen ari dira (% 18) eta 29 (% 10) atzeratuta gelditu dira.

Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren lege-auditoretza egin zuen auditoretza-enpresa baimendu batek. Otsailaren 28tik martxoaren 2a arte eta martxoaren 30ean egin zuen Audelco auditoretza-enpresak, zehazki. Egiaztapen sakonak egin ziren bulegoetan, SIMZen, HHTZn, HUAn, Egillorko EUTEn, Hornidurako Laborategian eta E.Leclerceko garbigunean.

Emitza moduan, auditoretza-taldeak aldeko iritzia eman zuen enpresan prebentzio-sistemaren integrazio-mailari buruz eta haren ezarpen- eta dokumentazio-mailari buruz. Bi ez-egokitzapen txiki detektatu ziren.

IZSAk fibrozementuzko hodiak, amiantoa dutenak, dauzkaten ur-hornidurako sareak mantendu eta konpontzeko lanetarako proposatutako Lanerako Plan Bakar Orokorra berrikusi eta eguneratu da.

Ekainaren 12an, dokumentuaren bertsio eguneratua aurkeztu zen, eta abuztuaren 3an Lan Zerbitzuaren zuzendariaren 227/2023 Ebazpena jaso zen, plan hori onartzea xedatzen duena. Onarpen horren indarraldia hiru urtekoa izango da, ebatzi deneko egunetik aurrera zenbatuta, hau da, 2026ko abuztuaren 2a bitartekoa.

Enpresa-jardueren koordinazioa

- Zerbitzuz eta horniduraz hornitzen duten 452 enpresen laneko arriskuen prebentzioko alderdien koordinazioa eta kontrola egin da. Horretarako, lan puntualetarako 177 koordinazio-agiri eta *in situ* ikuskatzeko 135 bisita egin dira.
- IZSAk sustatzen dituen obra guztien segurtasun- eta osasun-koordinazioa egin da.
- Sareen eta instalazioen mantentzeko obrako segurtasun- eta osasun-koordinazioa egin da. Nagusiki enpresako bertako langileekin egiten da. *In situ* kontrolatzeko 240 bisita hartu ditu barne.

Laneko arriskuen prebentzioko 131 ikastaro eman dira. Guztira, 572 ordu eta 649 parte-hartzaile izan dira (osasuna sustatzeko programetan emandako prestakuntzak kontuan hartu gabe).

Osasuna zaintzea

- Osasun-azterketen 2022-2023ko kanpaina maiatzaren 31n amaitu zen, eta langileen % 86k parte hartu zuten bertan.
- 2023-2024ko kanpaina urriaren 24an hasi zen, eta abenduaren 31 bitartean 147 pertsonak parte hartu zuten.
- Baja luze baten ondoren 12 mediku-azterketa egin dira 23 lanean hasi behar duten langile berrientzat.

Osasuna sustatzea

- 24 pertsonak jaso dute prestakuntza teoriko-praktikoa gidatze seguruaren gainean.
- 7 birziklapen-ikastaro eman dira desfibriladorea erailtzeko, 60 parte-hartzaileekin, eta 2 ikastaro, hasierako akreditazioa emateko desfibriladorea erabiltzeko, 13 parte-hartzaileekin.
- Fisioterapiako 154 saio ordaindu dira langileekin batera, 53 langileren eskaerei arreta emanez.
- Gripearean aurkako txertoa jarri zaie 63 pertsonari.

Segurtasuneko eta Osasuneko Batzordea 6 alditan bildu da.